

ANAGRAMA



Rafael Chirbes

Rafael Chirbes (Tavernes de la Valldigna, Valentzia, 1949) ez da atzo jaioa. Literaturarako, bistan da. Zortzi eleberri ditu dagoeneko argitaratuak, zenbaiten ustez "Espainia garaikidearen erradiografia gordina" osatzen dutenak. *Crematorio* (Anagrama, 2007) azkenarekin jaso ditu, ordea, orain arteko aipamenik sutsuenak. Berriki, Kritikaren saria, adibidez.

ARITZ GALARRAGA

«Gure garaiaren arimaren egoera kontatu nahi nuen»

Eleberri bereziki gogorra da zure azkena, gaur egungo gizartearen erretratu garrantza. Hain gaizki al gaude, Chirbes jauna?

Egia esan, honek guztiak garai baten akabe-ra ematen du. Argien mendearekin hasi zen zikloa amaitu egin da. Arrazoirik ezaren eta indibidualismoaren garaipena Eszipion

Afrikarrak Kartagon lortutakoa bezain erabatekoa izan da eta, garaipenaren ostean, gatzarekin erin dira zelaia ezer gehiago ez jaiotzeko. XX. mendeko ideal haietatik hitzak ere ez dira geratu: klase borroka, langileria, iraultza, historiaurrekoak egiten zaizkigu. Orain ez dakigu zein den geure

ondoeza, ez eta, ondorioz, nola izendatu ere. Injustizia bat ikusten dugu, baina inork ez dirudi erruduna. Esplotatua sentitzen denari moldatu gabea deitzen diote, edo *mobbing* hitza aipatzen da. Barrikadetara edota zelularen bilerara joan beharrean, psikologora joaten gara orain.

Levanteko kostaldean girotua, gertutik ezagutzen duzun errealtatea deskribatzen du nobelak. Nahi zenuena kontatzeko eszenatoki perfektua zen? Edo, ezinbestean, bakarra?

Eszenatoki aproposa da, garai honen kontraesan mordo bat biltzen baititu, baina ez da bakarra. Leku guztietan, mekanika berdina da, gutxi gora behera.

Nobelan bildu dituzun pertsonaien artean denetarik aurkitzen dugu: urrezko egin den eraikitzailea, nekazari lanetan dabilen iraultzaile ohia, bere onenak eman dituen idazlea, han eta hemengo txuloak... eta ematen du bakar bat ere ez duzula salbatzen.

Liburua irekitzen duen San Pauloren zitan esaten den bezala, inor ez da bizi norberarentzat, inor ez da hilzen norberarentzat. Proiektu kolektiborik gabe, inork ezin du helburutzat izan norbere bizitzari zentzua aurkitzea. Eta, norbere ipurdia salbatzeko karrera horretan, ez da handitasun eszenarik sartzen. Gerretan, etsaiaren aurrean gertatzen diren ihesaldi handiak duintasun ezaren eredu dira, edozein zapaltzen da, edozein entregatzen da norbera salbatzeagatik. Irakurri duzu Irene Nemirovsky-ren eleberri zoragarri hori, *Suite française*, alemaniarren mehatxuaren aurrean Parisetik nola ihes egiten duen? Bada, horrelako zerbait, baina ustezko bake sozialaren garaian.

Liburuan zehar esfortzua nabari da forma aldetik, narratzailearen ahotsa pertsonaien arteko elkarrizketekin batera, 50 orrialdeko paragrafoak... istorioa dago, bai, baina apustu formalak ere bai?

Bai, kontatzen dena eta nola kontatzen den eskutik doazela pentsatzen dutenetakoa naiz. Eredu zaharrek lilurtzen gaituzte, baina ez digute balio. Nobela bakoitzak bere estiloa bilatu behar du, bere lengoia, arnasketa, eta nik ez nuen polizialeberri bat egin nahi, ez ustelkeriari buruzko salaketa-nobela horietako bat. Gure garaiaren arimaren egoera kontatu nahi

nuen, jainkoek abandonatutako mundu hau, eta gai horren bilaketak markatu du irakurlearengan lan birrintzailea egin nahi duen liburu honen estiloa.

Gogorra izan al da *Crematorio* idaztea?

Itsusia da esatea, egoera gogorak bizi baititu jende askok lanean, eta lotsa pixka bat ematen du idaztea gogorra dela esateak, baina gezurretan ariko nintzateke aitortuko ez banu. Liburua putzu ilun batetik atera da, edo putzu ilun batean sartu nau. Non nengoen ez nekiela bukatu nuen. Liburu bakoitza, alde edo moldez, psikoanalisi moduko bat da, autopsia bat, eta lanak eman zizkidan pertsonaia horiek guztiak barrutik ikusteak, ni neu barrutik ikusteak.

“Mina irudikatzeak gainetik kentzen dizu: edo, hobeki esanda, beste zerbaitetan bilakatzen du” irakur daiteke nobelan. Antzeko zerbait gertatu al zaizu?

Bukatu nuenetik urte betera, esan dezaket *Crematorio* beste zerbait hasi dela izaten; eta, azkenerako, hondoratu baino, birrindu baino, aurrera egiten lagundu didala. Orain dagoeneko irakur dezaket eta barre egin azpitik dagoen umore izpi eta jenio biziarekin, idazteko behar izan ditudan hiru urte luzeetan eta hurrengo hilabeteetan gertatu ez zaidana. Zuzenketak egiteko ere ez nuen indarririk. Bere etsipena kutsatu zidan, edo nirea kutsatu nion liburuari.

Sari desberdinek, horien artean Kritikarenak, hedabideetako kritikek, zure azken nobela nabarmendu dute, eta nola gainera (“Chirbesen onena eta literatura espainiarrak mende honetan emandakoen artean onenatarikoa”). Espero zenuen horrelakorik? Zer garrantzia ematen diezu horrelakoei?

Nahasi egiten nau. Esaten duzu: dena hondamen hutsa da, eta sari bat ematen dizute. Eta ez dakizu non sartu. Zenbait sarik liburuaren hedapena azkartzen dute, edo autorearena, eta hori esan dezagun ona dela zure “ibilbide literarioarentzat”. Gainera, onarpen publikoak erotuta laudena- ren ideia horretatik askatzen laguntzen zaitu, eta eskertu egiten da; gainontzean, zu ez zaren beste inork ez dizu hurrengo folio zuria beteko. Sariak harrotzen bazaituzte, hori ere zure arazoa da. Pentsatzen dut hogeitertekin eta lehen nobelarekin moz-



Joan den urtean argitaratutako *Crematorio* nobelarekin lortu ditu Rafael Chirbesek kritikarien txalorik beroenak.

“Honek guztiak garai baten akabera ematen du. Argien mendearekin hasi zen zikloa amaitu egin da”

kortzera irits zaitezkeela. Hirurogei urteen bueltan eta kontatu beharreko ia guztia –espero dut guztia ez izatea– zortzi liburutan kontatu ondoren, sariak eta balakuak beste eszeptizismo batekin begiratzen dituzu: ezagunak dituzu, idazle gisa, zure ahuldadeak, hauskortasuna, beste inork baino hobeki.

Literatur mundua sobera gustuko ez duenaren fama jarri dizute.

Zer da “literatur mundua”? Ez dakit existitzen den ere. Ez zait interesatzen kalaka hori. Ez zait gustatzen nire bizitzaz hitz egitea, ez beste idazleenaz: haien liburuak interesatzen zaizkit. Jatorrak dira batzuk eta, hala ere, beren obra hala-hola interesatzen zait, eta alderantziz, bada sobera gustuko ez dudan jendea, baina beren lanek kitzikatzen naute. Horrexegatik ez zait ona iruditzen –salbuespen ohoragarriak salbuespen– kritikari eta idazleekin maiz ibiltzea, ezen, nahi edo ez, askatasun asko kentzen baitizu. Adiskidetasuna eta gustu literarioak nahastera behartzen zaitu, eta hori zinez da txarra. Adeitsua zarenez, badirudi gogoko duzun jendeari bere liburuak zoragarriak direla esatera behartua zaudela, eta ez da ona, ez haientzat, ez zuretzat. Inork egin duenaren gaineko iritzia eskatzen didanean, saiatzen naiz ematen eta, noski, maiz izaten da desatsegina. Baina ezin dut jasan inork esatea nire liburu bat gustatu zaiola gustatu ez zaionean. Lagunek bada-kite, eta hitz egiten didate –uste dut– askatasun osoarekin. Pasioen labirinto hori saihestearren, onena da liburuak irakurtzea eta autoreengandik ihes egitea. Askatasunez azal dezakezu maitasuna edo atsekabea, gauza ezinbestekoa da autore baten osasun mentalarantzat.

Hor zehar, asko irakurtzen duzula irakurri dut. Baina, zer? Idazle garaikideekin ere ausartzen zara? Gero eta lan gehiago daukat argitaratzen denaren artean zer irakurri asmatzen, eta gehiago irakurri eta berrirakurtzen ditut liburu zaharrak nobedadeak baino –gaua sartzen ari da, probestu beharra dago–. Gauza

“Ez zait ona iruditzen
kritikari eta idazleekin maiz
ibiltzea, ezen, nahi edo ez,
askatasun asko kentzen
baitizu”

berrien artetik, konfiantzazko jendeak gomendatzen didana irakurtzen saiatzen naiz, eta badira interesatzen zaizkidan gazte batzuk. Uste dut Andres Barba, Ricardo Menendez Salmon eta gisakoek ahots oso pertsonalak dituztela eta ausardia handiarekin egiten dietela aurre gure garaiko kontraesanei. Iristen dira nire eskuetara su artifizialen eta txiste burutsuen aldeko idazle gazteak ere, eremu guztiak harrapatu dituen post-torrentismoaren eskolako jarraitzaileak. Bestela, bizi-bizirik daude sekulako idazleak: Alvaro Pombo, Ramiro Pinilla... ados egon zaitezke Pinillarekin edo ez, baina, a zer nolako lana bere saga hori! Izutzeko modukoa da inork modu horretako ahalegin bakartia egin izana.

Eta, euskaraz egiten denetik zerbait iristen al da?

Zoritxarrez ez dakit oso ongi zer egosten den hizkuntza horretan, gaztelaniara itzultzen dena soilik, eta ez da asko. Gauza bertsua gertatzen da –nahiz eta eskuragarriagoak izan– katalanez eta galegoz idazten direnekin, badirudi etxeok kanpokoak baino interes gutxiago pizten duela. ■

TESTULIBURUAK
adituen eskuetan
ez dago
ikasgai zailik

elkar
liburuak eta materiala osagarrietan dituzte

Orain internetaz ere eskura ditzakezu zure testuliburuak
www.elkar.com

ARRASATE • ZAIONA • SORGARA • BILBO • DONOSTIA • GASTEIZ • HERNANI • IRUN • IZUBA • TOLOSA